

Energia, erabil dezagun arduraz

Aldaketa Klimatika gera dezakegu!!!



Aldaketa Klimatika, zer ote da hori?

Denbora zehatz batean eta mundu mailan edo eskualde mailan tenperaturaren, euriaren, hodeien, hezetasunaren eta antzeko aldagai klimatikoaren aldaketari **Aldaketa Klimatika deritzo**.

Lurra sortu zenetik, duela 4.500 miloi urte, lurreko klimak aldaketak jasan ditu etengabe arrazoi naturalak direla medio. Baina egia da azken urteetan aldaketa hauek asko azkartu direla giza jardueren eta berotegi efektua eragiten duten gasen isurketaren ondorioz.

Berotegi efektua


Gas hauek, besteak beste, eguzkiaren irradiazioa lurrera iristean bertatik kanpora islatzea eragozten dute, horrela, energia atmosferan geratzen da eta lurrazaleko tenperatura igo egiten da, hots, berotegi efektua gertatzen da. Azken hiru hamarkadetan iberiar penintsulako batzuetan besteko tenperatura $1,5^{\circ}\text{C}$ igo da eta aditu batzuen iritziz mende bukaerarako $6,4^{\circ}\text{C}$ izatera irits daiteke.

GAS ERAGILEAK ETA GIZA JATORRIA

| Gas | Giza jatorria |
|--------------------------------------|--|
| Karbono dioxidoa (CO ₂): | Erregai fosilen erabilera |
| Oxido nitrosoa (N ₂ O): | Ongarri eta erregai fosilak |
| Metanoa (CH ₄): | Erregai fosilak, ganadu hazkuntza, arroztiak eta zabortegeak |
| Ozonoa (O ₃): | Trafikoa |

Aldaketa Klimatikoaren ondorioak

- Itsasoaren maila 50-95 cm artean igoko da mende honetan eta kostako zonalde asko arriskupean egongo dira.
- Polo eta mendietako glaziarrek gutxitu egingo dira, ur gezaren ereserba gutxituz.
- Hainbat ekosistema arriskuan egongo dira: ekosistema artikoak, glaziarrek, baso tropikal eta borealak, koral arrezifeak, hezeguneak, e.a..
- Muturreko fenomeno klimatikoak edo haien eragina handituko dira: lehorteak, bero boladak, suteak, uholdeak, urakanak, ekaitzak, e.a.. Beraz, kalte sozio-ekonomikoak handituko dira.
- Tenperatura 2°C igotzen bada, elikagaien produkzioa modu esanguratsuan jaitsiko litzateke eta gosea hedatuko litzateke batez ere herrialde txiroetan.
- Ur edangarria lortzeko arazoak eta epidemiak izateko arriskuak handituko dira.



Energia iturri berriak bilatu behar ditugu

Energia berriztagarriak erabiltzen dugun energiaren % 7a dira, soilik. Portzentai hau handitu beharrean gaude eta aukerak ugariak dira: energia eolikoa, geotermikoa, hidraulikoa, mareomotrizea, eguzki energia, biomasa eta bioerregaiak, gradiente termiko ozeanikoa, e.a..

Inguruan gehien ekoizten direnak eguzki energia, eolikoa, hidraulikoa, biomasa eta bioerregaiak dira.

Energia iturri berriak bilatzea garrantzitsua da baina guztiek inpaktua sortzen dute ingurumenean eta arazoari aurre egiteko tresna egokiena energia aurreztea eta modu eraginkorrean erabiltzea da.

Energia aurrezteko trikimailuak

1. Ahal duzunean argi naturala erabili: doakoa da eta ez du inongo kalterik sortzen.
2. Kontsumo baxuko bonbilak erabili % 50-80 artean aurrez dezakezu eta gainera bizi iraupen luzeagoa dute.
3. Etxea ondo isolatu eta pertsianak erabili etxeko tenperatura mantentzeko. Udaran beroa eta neguan hotza saihestuko dituzu.
4. Kontsumo eraginkorreko elektrogailuak eta ibilgailuak erosi. Piska bat garestiagoak izanda ere luzera aurreztuko duzu.
5. Behar ez denean argiak, telebista, bideoa, ordenagailua, e.a. itzali, inongo argitxorik piztuta utzi gabe, batz bestea familia baten kontsumo "fantasma" honek %12a suposatzen baitu.
6. Neguan berogailua gehienez 20° Ctan jartzea eta leihoak itxita mantentzea komeni da. Etxetik ateratzen bazara 15-16° C utz ezazu etxea erabat hoztu ez dadin.
7. Udaran klimatizadorea erabiltzen baduzu leihoak itxita mantendu eta 25° Ctan jartzea nahikoa duzu.
8. Sukaldean lapikoak estali eta labea eta hozkailua ondo itxi. Berotze prozesua amaitu aurretik labea edo suak itzali bero hondarra aprobetxatzeko eta ez sartu janari beroak hozkailuan, lan gehiegi egitera behartzen baituzu.
9. Garbigailua eta ontzi-garbigailua ondo bete arte ez garbitu; energia gutxiago gastatuko duzu.
10. Ibilbide motzetan oinez edo bizikletaz joan eta bestela garraio publikoa erabili, energia asko aurreztuko duzu.